



Bartzelonako 'El Periodico'.

# EUSKALDUNON EGUNKARIA nahastea helburu zuten berriak eta paperak

Zenbait komunikabidek erabilitako «dokumentuak» eskuratu ditugu

**J.D. Aizpurua Aizpururi eta Karmen Gisasolari polizia harrapatutako KASen paper batzutatik egindako informe batean oinarritu dira zenbait komunikabide EGUNKARIA erakunde horrekin nahastea. Dokumentuak lortu ditugu. Hona hemen gertaerak eta paper horiek diotena.**


**DONOSTIA**

«EUSKALDUNON EGUNKARIAREN zuzendariaren izendapena ETAko buruzagien oneritiz egin omen zela ulertu daiteke Frantzian atxilotutako etakideei harrapatutako dokumentazioan». ETB-1eko albistegiak egun horietan KASen paperen inguruko berriekin nahastu zuen esaldia. Handik ordu erdira gauza bera esan zuen ETB-2k espainieraz.

«Ez da posible-ka» hasi ginen erredazioan horren berri izatera-koan. Nola liteke hain arinki eta hain profesionaltasun eskasa erakutsiz medio batek beste zikindu nahi izatea? Euskal Telebista publikoak euskarazko egunkari bakarra hain merke zikindu nahi izatea? Gure artean gogoan genituen EGUNKARIAK oso gutxi saltzen duela esaten aritu direnak. CIESeK eta Administrazio Kontseiluak eskaintako datuen ondoren EGUNKARIAK berrogei mila inguru irakurle dituela frogatu ondoren, zerbaiti heldu beharra zeukan EGUNKARIARI kalte egin nahi zionak.

Programaren bideoa eta «dokumentu» ditxosozko horiek eskatu genizkion albistegiaren arduradunari. Bideoa baietz baina dokumentuak ezetz. Administrazio Kontseiluaren esku utzi genuen afera. Berari zegokion erantzutea.

**IURRETA BARTZELONA IRUNEA** Bi aste pasa eta Bartzelonako 'El Periódico-n' gauza bera. Baina luzeago eta gaiztoago oraingoan. «ETA controló la salida de un diario» izenburu, nahiz eta barruan «ETA estaba al tanto de como nacía la nueva publicación» esan.



Polizia Aizpurua eta Gisasolari hartutako paperetatik egindako dokumentuak.

Berriz ere KASek eta Herri Batasunak komunikabideei buruz idatzitakoekin nahasten zuten. 'Egin-eko' tailerretan editatzen zela zioen, jakina denean prozesu osoa Lasarten burutzen dela eta inpresioa baino ez dela han egiten. KASen abagadune analisi bat aipatzen dute han EGUNKARIA ageri dela eta.

Aizpurua Aizpururi errefuxiatuari harrapatutako paperak aipatzen ditu kazetariak. EGUNKARIAREN zuzendaria zela eta ez zela ETARI informazioa eskaintzen omen zitzaion paper horietan. «Es un tfo jatorra y bien visto», «Hay muchas dudas y se presentan argumentos a favor y en contra... Ez du kazetariak izenik aipatzen.

Hurrengo egunean 'Navarra Hoy-k' jaso zuen 'El Periódico-tik' hartuta OTR-Press agentziak banatutako berria.

Iturri beretik jasotako «informazioak» ziren guztiak.

**INFORMAZIOA Baina frogatu EZ DA beharra zegoen. KONTROLA Une honetan**

EGUNKARIAREN erredazioan daude poliziaren informetatik osatutako «dokumentuak» eta aipatu komunikabide guztiak erabili dutena. «Datos que constatan el control ejercido por E.T.A. y el M.L.N.V sobre 'Egunkaria', en base a documentos incautados a varios de sus dirigentes en Iparralde, de los que se extrae lo referente a 'Euskaldunen Egunkaria'. Ezin argigarriago izan dokumentuaren helburua, nahiz eta barruko paperak irakurritu eta EUSKALDUNON EGUNKARIAREN bilakaera ezagututa, halako ondoriozik ateratzerik ez egon.

Urriak 26ko data darama Aizpurua Aizpururi hartutako berrietatik osatutako paperak. EGUNKARIAREN zuzendaritzarako, jakina den bezala, Torrealdaik, Iñaki Zabaletak eta Za-

lakainek ezin zutela esaten da. «De no ser uno de Argia (cosa que se ve como necesaria) la única opción que queda es Joserra Gartziaarena» dio paperak. Honen aldeko eta kontrako iritziak agertu ondoren, hasiera batean P. Zubiria baino egokiago litzatekeela aipatu eta beste paper batean N.G. sigladun bat aipatzen da, oraingoan «P.Z. edo Jox...» komenigarriago agertuz.

Ekonomiaz ere bada zerbait paper horietan. 40 akzio saldua eta 44 hitzemandak zeudela aipatzen du eta hasierarako 150 milioiko kapitala izango zela. Hasieran diru aldetik gaizki ibiliko dela dio eta, inpresio lanak direla eta, EGUNKARIAREN porrotak 'Egin-i' 10 milioiren galera ekarriko liokeela. EGUNKARIA abenduaren 4ean aterako zela esaten da, nahiz eta 6an ateratu zen.

Karmen Gisasolari harrapatutako paperetatik, KASen informazioa dela aipatuz, EA barruan EGUNKARIARI buruz sortutako kontraesanak agertzen dira. «Parece que la situación es bastante complicada y la última aparición de Garaiko (acerca del tema del periódico) puede ser una consecuencia de ello». Abuztuko data darama paper honek, hala nola, EGUNKARIAK berak bere errotatibarik ezin duela izan dioen beste papera.

**ARINKERIAK HAUXE DA «doku- ERAGINDAKO mentu» horietan KALTEAK aipatzen dena.**

KASek, indar politiko guztiak bezalaxe, EGUNKARIAREN sorrera gertutik jarraitu zuela ondorizatu daiteke. Baina hortik ezin dira argitaratu diren titularrak ateratu. Alde handiegia dago batetik bestera eta ez ditu toki onean uzten lardakeria horretan aritu diren kazetari eta komunikabideak. Norbaitek «dokumentuak» pasata ere kazetari eta komunikabide profesional baten lana da, lehendabizi horiek benetazkoak diren ikus- teak; ondoren, kontrastatzea eta azkenik ondorio faltsurik ez ateratzea.

Kazetari, enpresari, elkarte eta herritar asko bait gara horrelako «berri» batek sortutako kaltea sufritu behar izan dugunak.

## Egunkaria S.A.ko Administrazio Kontseiluaren oharra

Egunkaria S.A.ko Administrazio Kontseiluak ohar hau ezagutaraztea erabaki du, ustezko ETAKideen esku omen zeuden dokumentu batzuk oinarri, Prentsan agertu diren berriak direla eta. Berri horietan, KASEko barne txostenak aipatuz, indar politiko horrekin nahasi nahi bait da EGUNKARIAREN sorrera.

■ EUSKALDUNON EGUNKARIA eta honen argitaratzaile den enpresa, Egunkaria S.A., euskal kultur munduko 70 lagun inizatibari jarraiki osatu ziren. 'Egunkaria Sortzen' izeneko talde eragilea osatzeko deialdi

zabal eta irekia egin zen, eta EGUNKARIA argitaratzeko asmo baterakoiarekin bildutako 70 lagun horiek, euskaltzaleen artean euskara hutssezko egunkaria argitaratzeko dagoen adostasuna isladatzen dute.

■ Enpresa argitaratzailearen osaketa eta kapital bilketaren prozesua garden garden izan dira hasiera hasieratik. Horren ondorio dugu partikular asko, euskal kultur munduan ari diren enpresa gehienak, ikastola andana, Udaletxe eta euskal elkarte franko ere enpresako akziodun direla egun, 'Egunkaria Sortzen' hasiera

hartako taldeaz gain. Hasiera hartan, gainera, artean ez zuen Jaurlaritzak oraindik ere aztertzen ari den egunkari publikoaren proiektua egiteko asmorik agertu.

■ Ez hasierako Administrazio Kontseiluak, ez eta ere Akziodunen Batzarraren ondoren osatutakoak, ez du inoiz ezein indar politikoren eraginik jasan, ez zuzendariaren hautaketan, ez kapital bilketa prozesuan, ez eta ere bere gestioarekin zerikusirik izan dezakeen inolako alorrean.

■ Apirilaren 20ko Akziodunen Batzarraren erabakiz Eusko Jaurlari-

tzak ere postu bat duen Egunkaria S.A.ko Administrazio Kontseiluak, argitalpen honen euskarri diren independentzia eta euskaltzaleen adostasunari eutsi egingo die orain artean bezala.

■ Zortzi hilabeteren buruan EUSKALDUNON EGUNKARIAK 200 zenbaki plazaratu ondoren, Herri honetako sektore ezberdinekiko zabal-tasuna eta aniztasuna erakutsi ondoren, euskarazko egunkariaren ametsa egunero berrogei mila irakurle inguruko errealitate eder bihurtu ondoren, jatorri iluneko dokumentu ba-

ztutan oinarrituz EGUNKARIAREN sorreran eragin politikoren bat bilatu nahiak, lortutako arrakasta lohitzeko itxuragabeko saioa erakusten du.

■ EUSKALDUNON EGUNKARIA errealitate garden eta garbiari buruz nahasketa sortu nahi izan da. Jarrera ezin arinagoa erakutsiz eta profesionaltasunak eskatzen duen etika ahaztuta helburu ilun horien esku jarri diren komunikabideak salatuzko, Egunkaria S.A.ko Administrazio Kontseiluak bere eskura dituen eta egokien derizkion legezko bideak erabiliko ditu.